

Laruzko poltsan sartuz gero,
hamar anai-arrebak
bero-bero.

Zer den nork igarriko?



SOFGINA TXARLINA

Euskaraz **sorginduta**



SORGINA TXIRULINA

Ipuinak, hizkuntzaren amu

Pentagramaz eta notaz betetako gona zuria, bota eta kamiseta gorriak, eta kono formako txapel beltza.

Horiek dira Sorgina Txirulinaren arropak. Irudimenez beteta dauka burua, eta haren zeharkako flautari musika dario; haur eta helduentzako ipuin musikatuak sortzen ditu. «Umeak animatu nahi ditut gurasoei euskara irakastera», azaldu du Erioa Liqueetek, Sorgina Txirulinar

Sorgina Txirulina ipuin kontalaria herriz herri dabil istorioak kontatzen, haurrak gurasoei euskara irakastera bultzatzeko xedez. Asmo berarekin kaleratu berri du lehenengo ipuin liburua ere: *Badator Sorgina Txirulina!*

rulinaren atzean dagoen pertsonak. Ipuinak kontatzeaz gain, taillerak ere ematen ditu, eta kaleratu berri du lehenengo liburua: *Badator Sorgina Txirulina!*

«Konturatu nintzen nire inguru-

ruan bazegoela arazo bat: guraso askok ez dakite euskaraz, eta umeak euskarazko eskoletara doaz. Gurasoek zailtasunak dituzte ipuinak kontatzeko orduan», azaldu du Liqueetek. Gertuan ikusi

du arazo hori ipuin kontalariak, bere ahizpari gertatzen baitzitzaion. Hori ikusita, ipuinak sortzen eta haiek Interneten jartzen hasi zen. «Testuak euskaraz eta gaztelaniaz daude, eta helduek jakin dezakete zer ari diren kontatzen». Webgunean izena emandako pertsona orok jasotzen ditu ipuinak, doan. Haiek entzuteko aukera ere bada sarean, eta ipuin bakoitzak unitate didaktiko bat du, gaiarekin lotutako hiztegi eta esamoldeekin osatua.



FITXA

Emanaldiak

Saio motak

- ⊗ Ipuin kontaketa musikatuak.
- ⊗ Tailerrak.
- ⊗ Ipuin saioak eta tailerrak.

Datozen emanaldiak:

Urtarrilaren 18an, ostirala, 17:30ean, ipuinak eta dantza, Sestaoko gaztelekuan (Bizkaia).

Urtarrilaren 24an, osteguna, 16:45ean, euskaraz ez dakiten gurasoentzako familia tailerra, Gasteizko Mariturri eskolan.

Otsailaren 2an, larunbata, 17:30ean, euskal kultura eta euskara ipuin kontaketa, Audioko Areta kultur etxean (Araba).

Otsailaren 23an, larunbata, 11:30ean, ipuinak eta musika ipuin kontaketa, Aretxabaletako liburategian (Gipuzkoa).



MARISOL RAMIREZ / FOKU



● Haur eta gurasoentzako ipuin kontaketa eta tailerrak egiten ditu Sorgina Txirulina. SORGINA TXIRULINA

«Umeak beti ikasleak dira, eta kasu honetan umeak dira gurasoen edo amona-aitonen euskara irakasleak», nabarmendu du Liquetek. Hain zuzen, haurrak gurasoei euskara irakastera bultzatu nahi ditu. Euskararekin «harreman berezia» duela aitortu du Liquetek: «Sopelakoa naiz, eta herriko euskaltegian hasi nintzen euskara ikasten. Euskarari nire laguntza eman nahi izan diot». Asmo horrekin sortu zuen Sorgina Txirulina, eta laster egin zuen jautzia webgunetik plazara: haurrentzako eta haien gurasoentzako ipuin kontaketa musikatuak egiten ditu.

Plazatik liburura

Liquetek hainbat ipuin sortu eta kontatu ditu bizpahiru urteotan; 3 eta 8 urte arteko haurrentzako saioak dira nagusiki, baina helduegontzat ere egin izan ditu, jasotako eskaeren arabera. Euskara eta euskal kultura, ingurumena, aniztasuna eta beste hainbat gai jorratzen ditu istorioetan. Emakumeek ere presentzia handia daukate; esaterako, Balendina Terexkova lehenengo emakume astronautari buruzko ipuin bat du, baita Bizenta Mogel euskaraz idatzitako lehenengo emakumeari buruzkoa ere.

Hitzekin jolasten da sorgina, baina baita musika notekin ere; haren izen artistikoak iradokitzen duen moduan, musikaria ere bada Liquete: «Zeharkako txirula jotzen dut 10 urte nituenetik; hasieratik argi neukan musikak lekua izan behar zuela». Horregatik, istorioak kontatzeaz gain, txirula jotzen ere aritzen da saioetan. Abesti ezaugarriak jotzen ditu batetik, Pier Paul Berzaitzen *Baratze bat* eta Mikel Laboaren *Txoria Txori*, esaterako. Berak sortutakoek eta hurrek dakizkiten abestiek ere badute tarte kontaketa.

Ohartzerako, tailerrak ematen



Liburua

⊗ **Izenburua:** 'Badator Sorgina Txirulina!'

⊗ **Argitaratzailea:** Agalir argitaletxea.

⊗ **Prezioa:** 15 euro.

⊗ **Testuak, ahotsa eta txirula:** Erica Liquete.

⊗ **Ilustrazioak eta maketazioa:** Irune Alfageme.

⊗ **Soinu grabaketa:** Xabier Urrutikoetxea.

⊗ **Informazio gehiago:** sorginatxirulina.eus

ere hasi da kontalaria: «Hamar familiarentzako tailerrak izaten dira. Helduek eta umeek hartzen dute parte». Saio bakoitzean egunero gai arrunt bat lantzen dutela azaldu du Liquetek; esaterako, sukaldaritza. «Lehenengo zatian, ipuin bat kontatzen dugu, gaiari lotutakoa. Gero, ikasitako euskara hori martxan jartzeko ariketa praktikoak egiten dira. Kasu honetan, errezeta bat egiten dugu». Saioa amaitu ostean, etxerako materiala ere ematen die parte hartzaileei: esaldien eta hitzen bilduma bat da, etxean erabiltzen jarraitzeko.

Saretik plazara, eta plazatik

orrietara; hori izan da Sorgina Txirulinaren azken urratsa: *Badator Sorgina Txirulina!* ipuin liburua argitaratu berri du. Hiru ipuin jaso ditu: Bizenta Mogeli buruzkoa bata, animalien soinuak lantzen dituen beste, eta neguko barazkiei buruzkoa hirugarrena. Sareko ipuinen bitarteko berak ditu liburuak ere, hots, euskarazko eta gaztelaniazko testuak, audioak eta unitate didaktikoa. Euskaraz ikastea ez ezik, ongi pasatzea ere badu xede lanak: «Berez, euskaraz ez dakiten familientzat da, euskara ikasteko. Baina euskaraz dakiten familiek ere erabili ahal dute».